

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

2020ko Zaborra biltzen duen zerbitzu publikoarengatik tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zergabiltzetarako aldia

Zaborra biltzen duen zerbitzu publikoarengatik tasaren errolda, 2020koa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditza-
ten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta
hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek aipatutakoaren gaineko dokumentazioa udal idazkaritzan izango dute eskura-
garri, jendea hartzeko orduetan.

Era berean, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

A) Araututako epea: 2020ko maiatzaren 14tik 2020ko uztailaren 14ra.

B) Betearazpen epea: 2020ko uztailaren 15etik aurrera betearazpen epeari emango zaio ha-
siera, eta betearazte errekaruak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak or-
daindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adie-
razitako epeetan.

Ozaeta, 2020ko apirilaren 7a

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA